

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

5672 *Hutsen zuzenketa, honako honena: 6/2015 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 14koa, abenduaren 28ko 55/2007 Legea, Zinemarena, aldatzen duena eta Estatuaren aurrekontuan hainbat aparteko kreditu eta kreditu-gehigarri sartzeara eta zerga arloko beste neurri batzuk hartzea onartzen duena.*

Hutsak atzeman dira maiatzaren 14ko 6/2015 Errege Lege Dekretuan, zeinak Zinemaren abenduaren 28ko 55/2007 Legea aldatzen baitu eta Estatuaren aurrekontuan hainbat aparteko kreditu eta kreditu-gehigarri sartzeara eta zerga arloko beste neurri batzuk hartzea onartzen baitu. Errege Lege Dekretu hori Estatuko Aldizkari Ofizialaren 2015eko maiatzaren 15eko alean (116. zk.) argitaratu zen. Honen bidez, zuzenketa hau egiten da:

13. orrialdean, hogeita hamabosgarren lerroan, honako hau dioen lekuan: «...910O programa («Autonomia-erkidegoei egindako beste transferentzia batzuk»)»; honako hau esan behar du: «...941O programa («Autonomia-erkidegoei egindako beste transferentzia batzuk»)».